

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Ibarra Izagirre

*Durango,
Bizkaia (1929)*

Aurkibidea



Biografia

1929an jaio zen [Mikeldin](#).

Ama durangarra zuen eta aita Gordexolakoa. Zazpi urtegaz-edo, gerra aurretik, lurretako plazara joan ziren bizitzera.

Gurasoek Mendizabalen lantegian egiten zuten lan eta sozialistak ziren, baina "lehengo sozialistak" Jose Luisek dioen legez. Gerra sasoian bere aita Mateo batailoian aritu zen miliziano.

Hiru neba-arrebak amamarekin ebakuatu ziren Irazagorrian (Gordexola) eta ama Durangon egon zen eta gero Artziniegan. Durangora bueltatzerakoan, etxea hutsik aurkitu zuten: dena ostuta.

Aita frontetik etortzerakoan, ama eta biak kartzelan sartu

zituzten UGTko kideak eta sozialistak izatearren; 4-5 urtez egon ziren preso. Ama lotara baino ez zen joaten kartzelara; egunez, neskame lanetan ziharduen

(falangisten bulegoak garbitu...) eta ilea motz-motz ebaki zioten jendeak "zer zen" jakin zezan. Bitarte horretan 3 neba-arrebak amamarekin egon ziren.

Aitaren aldeko aitona-amonak Bilbon bizi zirenez bertan ere denbora asko igaro zuten.

Umetan lurretako eskolan hasi zituen ikasketak, baina hura apurtzerakoan, konpondu arte Durangoko La Villara joan ziren. 14 urtegaz Durangoko maristetara joan zen lanbide bat ikastera eta handik Baqué kafeaken hasi zen lanean; lehenengo

Pinondon; gero, Barrenkalen; eta, azkenik, gaur egun dagoen lekuan, Salabarrin.

Durangoko [Momotxo](#) auzoko

[Goikoetxebarria baserriko alaba](#)rekin ezkontzerakoan,

jaioterrira bueltatu zen,

[Pinondora](#) hain zuzen ere.



Zintak

DUR-030

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-04-29
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ibarra Izagirre, Jose Luis | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com